



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak txosten bat egin du foru parlamentarien 2021. urterako ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea foru parlamentarien ordainsariek gehikuntza izanen dutela, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez; hain zuzen ere, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 0,9koa, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarria.

2. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 60.880,12 eurokoa izanen dela 2021. urterako.

3. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 54.114,20 eurokoa izanen dela 2021. urterako.

4. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 45.659,88 eurokoa izanen dela 2021. urterako.

5. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 40.585,72 eurokoa izanen dela 2021. urterako.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

7. Erabaki hau jakinaraztea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

LEHENDAKARIA

Unai Hualde Iglesias

Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak emandako txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden ehuneko 0,9koa.

2. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2021ean jasoko dituzten ordainsariak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

- 147,62 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarientzat.
- 174,56 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarientzat.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

4. Erabaki hau jakinaraztea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

LEHENDAKARIA


Unai Hualde Iglesias

Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak txosten bat egin du foru parlamentarien eta Legebiltzarreko langileen bidaia ofizialengatiko ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Mantentzea, 2021erako, foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariaz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubidea. Haien zenbatekoak hauek dira:

- Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 51,00 €/egun.
- Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 81,60 €/egun.
- Lokomozio-gastuengatiko ordainsariak: 0,32 €/km.

2. Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hauek dira karga-salbuespena duten zenbatekoen mugak 2021erako: Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean, 53,34 euro egun bakoitzeko; eta atzerrira eginiko bidaiak direnean, 91,35 euro egun bakoitzeko. Lokomozio-gastuengatik: 0,32 euro kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

4. Erabaki hau jakinaraztea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

LEHENDAKARIA

Unai Hualde Iglesias

Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua